

ANTIGUOKO MERKATARI ETA ZERBITZU EMAILEEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO GABONETAKO PROMOZIOAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

“ANTIGUON” Antiguoko Merkatarien eta Zerbitzuen Elkarteak, G75217075 zenbakidun IFK duenak, Antiguoko auzoko tokiko komertzioetan erostearen aldeko kanpaina bat egitea erabaki du, ondoren adierazten diren OINARRIAK dituen.

Ekimen hau sustatzen duten 37 komertzioak

60 PLUS GERIATRÍA (Carmelo Echegaray, 3); **ALBERTO PELUQUERO CABALLEROS** (Resurrección M. Azcue, 8); **AM CALZADO MODA** (Juan de Garay, 5); **AMBAR** (Matia, 1); **ANHELO** (Matia, 1); **AUDIOCENTRO FEDERÓPTICOS LEGARDA** (Benta Berri Plaza, 3); **BASMODEC PINTURAS** (José Goikoa, S/N); **BOX CALF DONOSTI** (Benta Berri Plaza, 5); **CARNICERÍA GARMENDIA** (Matia, 5); **CARNICERÍA MAIALEN** (Carmelo Echegaray, 10); **CARREFOUR EXPRESS** (Zarauz, 88); **CLÍNICA DEL PIE ANA OLGA AROSTEGUI** (Simona de Lajust Kalea, 8); **FOTO VIP STUDIO** (Resurrección M. Azcue, 7); **FRUTERÍA LOREA** (Zarauz, 86); **GARAZI LIBRUDENDA** (Matia, 44); **IDEAL CENTRO DEPILACIÓN LASER** (Tolosa, 15); **JATOR KIROLAK** (Carmelo Echegaray, 4); **JOSTAMENDI** (Carmelo Echegaray, 2); **JOYERIA RELOJERIA MARICHALAR** (Matia, 11); **JOYERÍA YOCRIS** (Heriz, 5); **JUGUETERIA MAPE** (Heriz, 16); **KEALA** (Matia, 1); **KIES SPORT STYLE** (Tolosa, 11); **KOR'EST** (Alfonso XIII, 2); **LIBRERÍA JIMENEZ** (Carmelo Etxegarai, 10); **LUKAS GOURMET** (Julio Caro Baroja Plaza, 1); **L VINTAGE** (Matia, 11); **MI TIENDA** (Matia, 6); **MIEL Y CANELA** (Matia, 1); **MUEBLES MARTIN** (Zarautz 122-124-126); **ORTOBERRI ORTOPEDIA** (Tolosa, 13); **OSKARBI OINETAKOAK** (Matia, 21); **PELUQUERÍA ÁNGELA ETXARRI** (Simona de Lajust, 6); **PETMAN ILUMINACIÓN** (Heriz, 2); **REGALOS CLARA** (Matia, 11); **TOME SAN SEBASTIÁN** (Ondarbide, 3); **XARMA BLUE** (Alfonso XIII, 2)

LEHENENGOA: Promozioren xedea eta sariak: Antiguoko merkataritza promozionatzeko eta sustatzeko helburuz, ondorengo sariak izango ditu promozio honek:

- **3 EROSKETA-BALE, bakoitza 200 €koa**, 20 euroko erosketa-baletan zatikatuta, kanpainarekin bat egiten duten Antiguoko komertzioetan kontsumitzeko.
- **ZINEMARAKO 25 SARRERA BIKOITZ**, Antiguoko Berri zinema-aretoetan (Zarautz Hiribidea 2, 20018 Donostia, Gipuzkoa) **EDOZEIN EGUN ETA SAIOTAN ERABILTZEKOAK**.
- 11:00etan hasiko dira saioak, egun hauetan; abenduaren 23an, 24an, 26an eta 27an, eta urtarrilaren 2an eta 3an.
- **“STAR WARS: EL ASCENSO DE SKYWALKER” FILMA IKUSTEKO 65 SARRERA BIKOITZ**, Antiguoko Berri zinema-aretoetan (Zarautz Hiribidea 2, 20018, Donostia, Gipuzkoa); abenduaren 19an izango da saioa, 19:00etan.

BIGARRENA: Parte-hartzaileak: Kanpainak irauten duen bitartean, promozioarekin bat egin duten komertzioetan erosketak egiten dituzten **adinez nagusiak diren pertsona guztiak** parte har dezakete promozio honetan. Ezinbestekoa izango da gutxieneko erosketa bat egitea. **Merkatari bakoitzak ezarriko du gutxieneko erosketa bere komenientziaren arabera, eta zozketa-txartel bat edo hainbat emango dizkie bezeroei.** Beharrezkoa da zozketa-txarteleko eremu gutzietako datuak betetzea, eta komertzio bakoitzean egongo den zozketa-kutxan sartzea.

Zozketa-txartel guztiak egon beharko dira establezimenduak zigilatuta zozketa-kutxara bota aurretik (aurrealdean edo atzealdean). Establezimenduak ez badu enpresaren zigilurik, nahikoa izango da txartela eskuz identifikatzea, saltzailearen IFK zenbakiarekin eta sinadurarekin.

HIRUGARRENA: Iraupena: 2019ko abenduaren 3tik 2020ko urtarrilaren 4ra egongo da indarrean deskribatutako promozioa.

LAUGARRENA: Zozketak: GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN bulegoetan egingo dira zozketa guztiak, eta publikoak izango dira. Hausaz aterako dira zozketa-txartelak, eta zozketen akta jasoko du Idazkariak edo

ANTIGUOKO MERKATARI ETA ZERBITZU EMAILEEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO GABONETAKO PROMOZIOAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

izendatzen den Zuzendaritza Batzordeko kideak. Ordezkoak ere aukeratuko dira zozketan. **Ezingo zaio pertsona berari bi sari egokitu.**

- **1. ZOZKETA: “STAR WARS: EL ASCENSO DE SKYWALKER” FILMA IKUSTEKO SARRERA BIKOITZEN IRABAZLEAK.**
 - **Abenduaren 12an egingo da zozketa, 14:00ak eta 16:00ak bitartean** (baldin eta, antolakuntzarekin lotutako arrazoiengatik, zozketaren data aldatu beharrik sortzen ez bada; kasu horretan, GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN webgunean –<http://www.fmg.es/nuestras-asociaciones/antiguo>– argitaratuko da). <http://www.fmg.es/nuestras-asociaciones/antiguo>.
 - Guztira, 90 zozketa-txartel aterako dira (horietako 25, ordezkoen zerrenda osatzeko).
- **2. ZOZKETA: EROSKETA-BALEEN eta GABONETAKO GOIZEKO ZINEMA-SAIOETARAKO SARRERA BIKOITZEN IRABAZLEAK.**
 - **Abenduaren 19an egingo da zozketa, 14:00ak eta 16:00ak bitartean** (baldin eta, antolakuntzarekin lotutako arrazoiengatik, zozketaren data aldatu beharrik sortzen ez bada; kasu horretan, GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN webgunean –<http://www.fmg.es/nuestras-asociaciones/antiguo>– argitaratuko da).
 - **EROSKETA-BALEAK:** guztira, 10 zozketa-txartel aterako dira (horietako 7, ordezkoen zerrenda osatzeko).
 - **GABONETAKO GOIZEKO ZINEMA-SAIOETARAKO SARRERA BIKOITZEN IRABAZLEAK:** guztira, 50 zozketa-txartel aterako dira (horietako 25, ordezkoen zerrenda osatzeko).

BOSGARRENA: Irabazleekin harremanetan jartzea: Behin zozketak egin ondoren, telefonoz jakinaraziko zaie irabazleei, beren sariak jasotzera joan daitezten. Bi telefono-dei bakarrik egingo dira.

Irabazleetakoren batekin harremanetan jarri ezin izanez gero, ordezkoen zerrendako hurrengo irabazleari deituko zaio, eta horrela, irabazleren batekin harremanetan jartzea lortu arte.

Irabazlea bera ez bada joaten pertsonalki zinemarako sarrerak edo erosketa-baleak jasotzera, **bere izenean joaten den pertsonak irabazlearen baimena eraman beharko du sinatuta bere izenean, bai eta baimena ematen duen pertsonaren NAN agiriaren kopia ere.**

Saria jasotzeko, argazkia ateratzeko baimena eman beharko du irabazleak, bere irudi-eskubideak emanez eta argazkia komunikabideetan eta GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen dituen sare sozialetan argitaratzeko baimena emanez (GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen ditu “ANTIGUON” Antiguoko Merkataritza eta Zerbitzuen Elkartearen sare sozialak ere).

Behin irabazleekin harremanetan jartzen garenean, GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN [webgunean](#) argitaratuko da irabazleen zerrenda. Ondore horietarako, saritutako pertsonak beren izen-abizenak irabazleen zerrendan argitaratzeko baimena ematen dute.

SEIGARRENA: Sariak jasotzeko eguna, lekua eta epemuga:

- **EROSKETA-BALEAK eta GABONETAKO GOIZEKO ZINEMA-SAIOETARAKO SARRERA BIKOITZAK:**
 - **hilaren 20ko 17:00etatik aurrera jaso ahal izango dira, telefonoz adierazitako establezimenduetan.**

ANTIGUOKO MERKATARI ETA ZERBITZU EMAILEEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO GABONETAKO PROMOZIOAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

- Sariak jasotzeko epemuga: **EROSKETA-BALEAK:** abenduak 26, 19:00ak. **GABONETAKO GOIZEKO ZINEMA-SAIOETARAKO SARRERA BIKOITZAK:** abenduak 23, 12:00ak. Irabazleetakoren bat ez bada bere saria jasotzera joaten, ordezkoen zerrendako hurrengo irabazleari deituko zaio, eta horrela, irabazleren batek saria hartzen duen arte.
- **“STAR WARS: EL ASCENSO DE SKYWALKER” FILMA IKUSTEKO SARRERA BIKOITZAK:**
 - abenduaren 13ko 17:00etatik aurrera jaso ahal izango dira, telefonoz adierazitako establezimenduetan.
 - Saria jasotzeko epemuga: abenduak 16, 11:00ak baino lehen. Irabazleetakoren bat ez bada bere saria jasotzera joaten, ordezkoen zerrendako hurrengo irabazleari deituko zaio, eta horrela, irabazleren batek saria hartzen duen arte.

ZAZPIGARRENA: Trukea egiteko baldintzak:

- **600 € EROSKETA-BALETAN:**
 - erosketa bidez bakarrik truka daitezke, promozioan parte hartu duen edozein establezimendutan. Epemuga: urtarrilak 20 (egun hori barne).
 - Guztira, **3 EROSKETA-BALE** zozkatuko dira, **200 €koa bakoitza** (20 €ko erosketa-baletan zatikatuta). Hau da, irabazle bakoitzak 20 euroko 10 bale izango ditu, hainbat erosketatan edo erosketa bakar batean osorik gastatzeko.
 - Erosketaren zenbatekoa balearena baino handiagoa baldin bada, irabazleak aldea ordaindu beharko du.
 - Sariak ezin dira trukatu eskudirutan. Ezin da balerik egin.
 - Ezin zaie beste deskontu, sari edo erosketa-bale batzuei aplikatu. Ezin zaie beste eskaintza edo promozio batzuei gehitu.
 - Antiguoko Merkatarien eta Zerbitzuen “Antiguon” Elkarteak –GMF– ez du bere gain hartzen erosketen emaitzaren erantzukizuna; bezeroaren eta establezimenduaren arteko harremanari bakarrik eragingo dio horrek.
 - **TRUKATUTAKO EROSKETA-BALE GUZTIAK TRUKEA EGIN DEN KOMERTZIOAN ENTREGATU BEHARKO DIRA, EROSKETA EGIN ONDOREN.**
- **GABONETAKO GOIZEKO ZINEMA-SAIOETARAKO SARRERA BIKOITZEN IRABAZLEAK:**
 - Sarrerek Antigu Berri zinema-aretoetan (Zarautz Hiribidea 2, 20018, Donostia, Gipuzkoa) proiektatutako Goizeko Saioetarako BAKARRIK balio dute, honako egun hauetan: abenduaren 23an, 24an, 26an eta 27an, eta urtarrilaren 2an eta 3an. Goizeko 11:00etan hasiko dira saioak.
 - Antiguoko Merkatarien eta Zerbitzuen “Antiguon” Elkarteak –GMF– ez du bere gain hartzen azken orduan filmen proiektzioen ordutegian eta karteldegian egon daitezkeen aldaketen erantzukizunik.
- **“STAR WARS: EL ASCENSO DE SKYWALKER” FILMA IKUSTEKO SARRERA BIKOITZAK:**
 - Sarrerek Antigu Berri zinema-aretoetan (Zarautz Hiribidea 2, 20018, Donostia, Gipuzkoa), abenduaren 19ko 19:00etarako programatutako saiorako BAKARRIK balio dute.

ZORTZIGARRENA. Araudia onartzea: Parte-hartzaileek oinarri hauek onartu beharko dituzte sarien irabazle izan ahal izateko, bai eta, promozio honen ondoriozko edozein gai ebazteko, Antiguoko Merkatarien eta Zerbitzuen “ANTIGUON” Elkarteak hartzen duen erabaki oro. Gipuzkoako Merkatarien Federazioaren [webgunean](#) argitaratuko dira oinarri hauek, eta parte hartzen duten komertzioetan egongo dira jendearen eskura.

ANTIGUOKO MERKATARI ETA ZERBITZU EMAILEEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO GABONETAKO PROMOZIOAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

BEDERATZIGARRENA: Izenaren eta irudiaren erabilera:

Oinarri hauek onartzeak sariak jasotzerakoan eta abenduaren 19ko 19:00etarako Antigu Berri zinema-aretoetan (Zarautz Hiribidea 2, 20018, Donostia, Gipuzkoa) programatutako “STAR WARS: EL ASCENSO DE SKYWALKER” filmaren emanaldian argazkietan azaltzeko baimena ematea dakar; horrela, irudi-eskubideen lagapena egingo du parte-hartzaileak, eta bere argazkia GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen dituen komunikabideetan eta sare sozialetan argitaratzeko baimena emango du (GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen ditu Antiguoko Merkatarien eta Zerbitzuen “ANTIGUON” Elkartearen sare sozialak ere). Horretarako baimena ez emateak sariari uko egitea dakar.

Datuen babeserako Legea

GIPIZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK, tratamenduaren arduraduna den aldetik, zure datuak biltzearen helburuak honakoak direla jakinarazten dizu: harremanetarako datuak kudeatzea, komunikazio eta informazio orokorrerako, publizitaterako eta merkataritza-prospekziarako. Interesdunaren baimena da tratamendurako oinarri juridikoa. Zure datuak ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko obligaziorik egon ezean. Edozeinek du eskubidea bere datu pertsonalak eskuratzeko zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurkaratzeko edo eramateko; horretarako, gure bulegoen helbidera idatz dezake, edo posta elektronikoko bat bidal diezaguke federacion@fmg.es helbide elektronikora, eta zein eskubide erabili nahi duen adierazi. Gure webgunean (www.fmg.es) eskura dezakezu informazio gehigarria.